

DORNBIRN 2022

Hau irakurtzen bazaude erasmusa egitea pentsatzen ari zarelako da. Honekin pixkat laguntzea espero dut.

Hasi aurretik, argi utzi beharra dago hemen idatzita egongo den guztia nik bizitako esperientziatik idazten dudala eta guztiak desberdinak direla.

Erasmus programa egiteko guztiz ziur ez egotea gerta daiteke edo nora joan oso argi ez eukitzea. Nire ikuspuntutik, esperientzia izugarria izan da. Esperientzia bizi arte ezin izango duzu ulertu besteak zertaz hitz egiten ari diren. Nahiz eta bakoitzak bere esperientzia modu batera bizitzen duen. Kontuan izan behar da aukeratzen den hiriak eragin handia izan dezakeela esperientzia. Bertan egon diren ikasleekin hitz egitea edo hau bezalako esperientzia dokumentuak irakurtzea gomendatuko nizuke.

1. DORNBIRN

Dornbirn Vorarlberg-en dago kokatuta, Austriako mendebaldean. Suitzatik eta Alemaniatik oso gertu. Zurich eta Munich, Viena baino askoz gertuago daude.

Hiri txikia da eta kultura nahiko ezberdinarekin. Orduategiak oso ezberdinak dira eta ohitu arte niri nahiko arraroa egin zitzaidan.

Erasmus ikasle kopurua 50 inguruan izan da aurten eta guztiak internazionalak ziren. Hau da Euskadiko 3 geunden eta gainerako guztiak beste herrialde batzuetakoak ziren (Herbereak, Norbegoia, Finlandia, Korea, Mexiko...)

Nahiko aktibitate daude hirian edo gertuko hirietan egiteko, baina festa bila bazaude, hau EZ da zure helmugako hiria. Festa egon badago baino ez da guk ezagutzen duguna bezalakoa. Niri pertsonalki ez zitzaidan gehiegi gustatu.

2. UNIBERTSITATEA

Dornbirn-eko unibertsitateak ez du UPV/EHU-rekin zerikusirik. Hango unibertsitatea askoz praktikoagoa da nahiz eta azterketak edo lanak ere egon. Unibertsitatera edonoiz sar daiteke ikasle txartela erabiliz eta bertan, erabil daitezkeen inprimagailuak daude.

Gainera elkartrukeaz arduratzen diren neskek oso atseginak dira eta laguntzeko prest daude beti.

Nik business-eko hainbat ikasgai hartu nituen eta mekatronikako 'Focus Electronic'. Business-eko irakasgaiak aste bete irauten dute eta nahiko ordu egiten dira egunean. Hainbat aurkezpen egiten dira klaseetan eta hauetara joatea derrigorrezkoa da. Irakasgaia bukatzerakoan azterketa bat edo report bat egin behar da hau gaintitzeko. Normalean azterketarik ez dago eta report-ak dira egin beharrekoak. Nahiz eta business ez ikasi, irakasleak eta business-eko arduraduna beti daude laguntzeko prest.

Mekatronikako irakasgaien, azterketa teoriko bat dago lauhileko erdian eta gero, taldeka egiten den proiektu handi bat. Proiektua egiteko unibertsitateak baliabide asko ditu eta asko ikasten laguntzen du.

3. ETXEBIZITZA

3 erresidentzia daude Dornbirn eta Hohenems artean. Hauetako bi Dornbirn-en daude eta hirugarrena Hohenems-en. Hauek hartu ahal izateko oso antolakuntza ona du unibertsitateak.

KOLPING: Dornbirn-en kokatuta dago eta merkeena da. Unibertsitatetik gertu dago. Oso erresidentzia handia da eta ikasleez gain familiak ere bertan bizi dira. Logela ezberdinak aukeratu daitezke baina bakarkako gela gehienak nahiko txikiak dira. Gauza da, sukaldea erresidentzia osoarekin elkarbanatzen dela eta ondorioz, bertan sukaldatzea ez da atseginegia.

ERNAS HAUS: Dornbirn-en kokatuta dago eta garestiena da. Unibertsitatetik gertu dago. Soilik banakako gelak dituzte, komun eta sukalde pribatuarekin. Nahiko berria da eta **guztira** 18 logela daude.

HOHENEMS: Hohenems-en dago (ondoko herria) eta nahiko berria da. Logela ezberdinak aukeratu daitezke; logela bikoitza edo banakakoa eta horretaz gain komuna pribatua izan daiteke edo beste batekin elkarbanatua. Sukaldea bien artean elkarbanatzen da. Egongelan komun bat dago telebistarekin eta belardi txiki bat dute.

Ni Ernas Haus-en geratu nintzen baina 18 logela bakarrik egonda eta ikasle lokalek lehenengo aukeratzan dutenez ~~eta 18 logela soilik daudenez~~ Erasmus ikasle gutxi geunden bertan. Erresidentzia ondo dago baina pixkat bakartia da. Hohenems-eko Erasmus ikasle kopurua handiagoa zen eta egongela komunari esker plan gehiago egiten dira bertan. Kolping-en nahiko erasmus ikasle zeuden eta logela komun bat ere badago non plan batzuk egiten ziren. Baina bertako ikasleak nahiko kexatu ziren bukaeran.

Hohenems-eko erresidentzia Dornbirn-en egon ez arren, autobusa erresidentzia ondoan hartu daiteke eta unibertsitatean uzten zaitu. Trena ere erabil daiteke baina hurrunago daude geltokiak. Gainera, Maestro txartelarekin bidaiak ez dira ordaindu behar.

4. GARRAIOA

Oso garraio ona dago Vorarlberg osoan. Trenak eta autobusak uneoro daude eta hauek erabili ahal izateko bi modu daude, erabiltzen duzun bakoitzean ticket bat erostea (nahiko garestiak dira) edo urte osorako dagoen 'Maestro' txartel bat erostea. Gidatzeko baimena izanda (beherapena egiten dizute) merkeagoa da eta honekin 100€ inguru balio du. Txartel honekin nahi beste tren eta autobus har daitezke (dohanik).

Honetaz gain Austria osotik bidaiatu nahi baduzu, ÖBB tren agentziak 20€ balio duen txartel bat du eta honi esker %50eko beherapena izango duzu Austriako tren guztietan eta beherapen txiki bat gertuko beste hiri batzuetara (Austriatik kanpo).

5. AKTIBITATEAK

Esan bezala festa ez da helmuga honetarako, baina beste aktibitate asko egin daitezke. Hirian bertan bouldering egiteko eta eskalatzeko lekuak daude bai eta gimnasio ezberdinak ere.

Gainera mendizalea izan ezker ez duzu aspertzeko denborarik izango. Autobus nahiko daude edonora heltzeko eta pixkat bilatuta leku ikaragarriak aurki daitezke.

Elurra heltzen denean, eskiatzeko leku asko daude inguruan. Autobusez edo trenez heldu daiteke eski area guztietara. Interesgarria edo lagungarria izan daiteke '3 taller pass' deituriko eski pase bat dagoela, urte osorako balio du baina unibertsitateko txartelarekin deskontua egiten dizute (kontuz datekin, abenduaren erdiraino bakarrik eros daiteke deskontu honekin